

# ITSASERTZAREN



# SUNTSIKETA

Euskadi

**GREENPEACE**

**Aurten, Arrantzarako Institutu  
Teknologikoa AZTIk Euskal  
Herriko itsasaldearen  
egoerari buruzko txostena  
aurkeztu du. Azken hamar  
urteak konparatuz,  
txostenaren egileek Euskal  
kostaldeko ingurugiroa  
suspertzen ari dela  
azpimarratzen dute.  
Baiezpen hau hegazti- eta  
arrain-komunitateen  
suspertzean oinarrituta dago.**



Egoera erkidego autonomoetan

# Euskadi



© Greenpeace

*Bilboko portu.*

Aurten, Arrantzarako Institutu Teknologikoa AZTIk Euskal Herriko itsasaldearen egoerari buruzko txostena aurkeztu du. Azken hamar urteak konparatuz, txostenaren egileek Euskal kostaldeko ingurugiroa suspertzen ari dela azpimarratzen dute. Baiezpen hau hegazti- eta arrain-komunitateen suspertzean oinarrituta dago. Oxigeno ekoizlera eta kutsatzaileen urritzea ere ikusi da uretan. Hori, ibai eta paduretako uren araztegi- eta saneamendusistemen hobekuntzari, eta industria kutsatzaileen desagerpenari esker posible izan da.<sup>1</sup>

Ikerketak dioenez azken hamar urteetan egoera hobetu arren, oraindik badaudela kutsadura jasaten duten lekuak, besteak beste Nerbioiko eta Debako uhubiak eta Pasaiaiko badia.<sup>2</sup>

Era berean AZTIk Euskal kostaldeak Prestige-n krisia gainditu duela ziurtatzen du. Hala ere, Nazioarteko Zientzialari Estamentuak marea beltz baten eraginak hamarkada batean nabarmenak direla ziurtatzen du. Gainera, Euskal Herriko hondartzetara fuel-olio aztarnak otsaila arte sartzen jarraitu dira. Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Sailak aurtengo martxoaren hasieran egindako txostenaren datuek esaten dutenaren arabera, oraindik 371 leku kutsatu geratzen ziren, hala ere leku gehienek kutsadura-gradu “arina” edo “oso arina” dute.

Baina Prestige-n marea beltza ez da Euskal kostaldeko kutsadura-arazo dagoen bakarra. Eusko Jaurlaritzak kostaldean edozein motatako isurketak (hirietakoak portuetakoak, industriakoak, ur beltzak...) baimentzen ditu. Isurketa hauek kostaldeko natura-baliabideei etengabeko kaltea egiten diete. Honez gain, Euskal kostaldeak itsasontzietako kutsadura ere jasaten du; esate baterako, “Diana I” 45 tona gasolio eta 3000 litro olio beterik zegoela Euskal kostaldearen aurrean urperatu zen pasa den urtarrilaren 18an. Greenpeace-k Sustapen Ministerioaren arduradunen kontrako salaketa bat aurkeztu zuen Bilboko Fiskaltzaren aurrean, artagabeki jokatzegatiko ustezko delitu ekologikoagatik. Salaketa artxibatua izan zen.

Euskal Herriko kostaldeko urbanizatzea lasai baina geldigabe dihardu. Honela, kostaldea gero eta ugariago diren etxe sakabanatuez betetzen ari da. Oro har, etxe hauek ez dute araztegi- eta saneamendu- sistema egokirik eta ur beltzak itsasora zuzenean botatzen dituzte.

### Izen propioak: GSI Etxegintza Taldea

GSI etxegintza enpresak Plentzia ibaian 61 txalet urbanizatzea proiektatu zuen. 2002an Txipio Bai ekologista taldeak lan hau jabari publikoa inbaditzeagatik auzitegietan salatu zuen. Beraz urbanizazioak ibaia- ren babez zortasuna gairitzen zuen (ibai arrutitik 20 metrotara). Eragindako beste eraso bat Isuskiza ibaitik hiru metrotara arroka bolumen handiz eraikita- ko haitzategia izan da.

Salaketa egon arren, 2003ko azaroan promotorea txalet horiek sustatzen hasi zen, eta abenduan, Uda- lako lizentziarik gabe ezta Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzaren baimenik gabe eraikuntza hasi zen. Horregatik Saila honek urtarrilean eraikuntza geldia- razi zuen.

Hala ere, berriki, Euskal Herriko Auzitegi Gorenak aipatutako proiektua legala dela kontsideratu du eta ibaitik hiru metrotara eraikitzen zuen pasabidea baino ez dela ilegala.<sup>3</sup>

Ez da hau GSI etxegintza taldeak aurre egin behar dion salaketa bakarra. Plentziako Abanikoan 280 txalet eraikitzeke zuten beste sustapen bat ere auzite- gietan salatua izan da. Kasu han, pasai babes-ere- mutzat hartzen den lurraldearen barruan dagoen 87 hektarea dituen (gehiena Ybarra familiarena dena) lurraldearen birkalifikazio saio bat da, oraindik onart- zear dagoena.

Salaketak dioenez, 2001an sinatutako akordio pribatu bat dago. Akordio honetan lurraldearen jabeek ondoko urbanizazioaren auzokoei 2,4 milioi euro eskaintzen dizkiete lurzorua hiritargarritzat birkalifi- kazioari aurre ez egiteko.<sup>4</sup>

### Eb-ren txostena: kutsatutako hondartzak<sup>5</sup>

Ez ditu betetzen Europako Komisioak zehaztutako derrigorrezko baloreak


- Toña Hondartza. Sukarrieta

Ildo horri jarraiki 2003. amaieran Urdaibaiko saneamen- duaren finantzaketa onartuta izan zen. Beraz, honako populazioaren ur beltzak ibaira isurtzen utziko da.<sup>6</sup>

Araztegi ezak eta Euskal kostaldeko urpeko kolektoreen egoera txarrak, eragin kaltegarria dute kostaldeko uretan.

Garapen jasangarri defendatzen duela dion Ikea enpresa kontraeza larrian erori da Barakaldon. Bertan, Ibarreta- Zuloko larre-ihitokietan Arcona Iberica promotoreak "Megapark" proiektua eraikitzen dihardu. Ikeak bere denda zona batean jarri zuen, zein Ezpitsua ekologista taldeak egindako salaketa ondorioz, Euskal Herriko Auzi- tegi Gorenak hezegune deklaratu du eta ondorioz dago- kion Naturgune Babestuen araudia ezarriz, 2003ko urrian Ibarreta-Zuloko Plan Partzialaren moldaketa ezi- nezkoa zela dekretatu zuen<sup>7</sup> Ikeak hezegunea ezagutzen ez zuela defendatzen du. Dena den zera, ez da oso sines- garria, zeren eta hezeguneari buruzko txostenak bazeu- delako. Beste alde batetik Arcona Iberica, Megapark-ko promotoreak Ibarreta- Zuloko larre-ihitokien hondamena tratatzen saiatu diren ekologistek 400.000 euro erreklamatu dizkie.<sup>8</sup>

Euskal Herriko kostaldean bi dira portu lan gatazkakorrenak, Mutrikuko portua eta Pasaiaiko kanpo-portua. Pasaiaiko kanpo-portuaren kasuan, kostaldean kalte han- dienetariko egiten duen adibide baten aurrean gaude. Tamalez, adibide hau azken aldi gehiegi errepikatzen da pauso berdina segituz: beharrezkoa justifikaziorik ez duten proiektuak dira, zeinetan eraikita eta funtzioname- nean dagoen portuaren handipena ukatu eta "uztea" era- bakitzen da metro bakoitza saltzeko eta pribatizatzeke. Kostaldeko Legearen espirituaren erabateko perbertsioa- ren aurrean gaude, Baina zera, azpiegituren arduradunei ez omen die axola. Mota honetako proiektuek amankomu- nean beste kontu bat dute: hautatutako kokapena agin- tariet mesprezatzen duten natura balio handiko eremuak dira. A Coruña, Ferrolen eta Pasaian egoera bera da. Kasu honetan mesprezatutako Naturgunea Jaizkibel mendia da. Mendi hau Euskal Autonomi Erkidegoko Itsasaldearen babesa eta antolamenduaren Lurralde Planen Sektorial- en, Europa Batasuneko Natura 2000 Sarearen eta Natur Intereseko Guneen Zerrenda Irekiaren barnean dago, Gipuzkoan babestu eta kontserbatu beharreko bost eremu handietako bat bezala agertuz.<sup>9</sup>



1. Barakaldo.
2. Plentzia.
3. Mutrikuko portu.
4. Pasaiaiko konpu-portu.

## Euskadiko puntu beltza

### Konklusioak eta gomendioak

Euskal Herriko kostaldea era jasangarriaz kudeatu behar den urbanizatzeko prozesua jasaten ari da. Eusko Jaurlaritzak Euskal kostaldea espekulaziotik babestu behar izango luke, oraindik garaiz da eta.

Euskal Herriko lurraldean garapen jasangarriaren estrategia abian jartzea kostalderako berri bikaina da, dudarik gabe.

Euskal Herriko Administrazioak euskal kostaldeari dagokionez gainditzeko dagoen itsasoko eta kostaldeko kutsaduraz bukatzeko ahaleginetan. Kostaldeko Saneamendu Planak kostaldeko 200 kilometroetan errealitate izan behar dira.

Portuetako azpiegiturei dagokienez, hauek benetako beharraren arabera jarraituz antolatu behar dira. Behar honek ez ditu Pasaiaiko proiektu faraoiko-alakoak dauden eskatzen portuetako kudeaketa egokia baizik.

Eusko Jaurlaritzaren Prestige-n istripuak eragin zuen marea beltzarengatik kalteak izandakoen artean gobernu erantzuleena izan da. Datu gehien eman duena eta informazioa gardenen argitaratu duena. Baina ezin du orain oker ibili eta marea beltzaren eragin negatiboak ahaztu. Adituek izakiengan eta haien habitaterako epe ertain eta luzeko eraginei buruz ohartarazten dute. Ondorioetako ikerketa eta analisia kaltetutako ekosistemaren suspertzea bizkortzeko oinarria izango da.

## Itsasertzaren suntsiketa 2004

### Euskadi

- [1] Litoral recuperado. El Correo. 04-5-10.
- [2] El litoral vasco ha experimentado en los diez últimos años una recuperación espectacular. Diario Vasco.04-5-10.
- [3] Una sentencia declara legal una promoción de 61 chalés recurrida por los ecologistas en Plentzia. El Correo. 04-5-1.
- [4] Medio Ambiente paraliza las obras de construcción de 61 chalets en Plentzia. El País. 04-1-11.
- [5] The Bathing Water Report 2003. [Http://www.europa.eu.int/water/water-bathing/report.html](http://www.europa.eu.int/water/water-bathing/report.html).
- [6] Acuerdos adoptados por el Consejo del Gobierno Vasco. 03-12-9.
- [7] Proteger y recuperar el humedal. Deia. 03-10-25.
- [8] Ecologistas se enfrentan a una indemnización de 400.000 euros por sus protestas en Ibarreta. El Correo. 03-11-8.
- [9] Salvar el jaizkibel. El País. 04-4-19.

### Greenpeace Madrid

San Bernardo, 107. 28015 Madrid  
Tel.: 91 444 14 00 - Fax: 91 447 15 98  
[informacion@greenpeace.es](mailto:informacion@greenpeace.es)

### Greenpeace Barcelona

Ortigosa, 5 - 2º 1º. 08003 Barcelona  
Tel.: 93 310 13 00 - Fax: 93 310 51 18  
[barcelona@greenpeace.es](mailto:barcelona@greenpeace.es)

### Greenpeace Palma de Mallorca

Carrer dels Blanquers, 1  
La Calatrava 07001 Palma, Illes Balears  
Tel.: 971 724 161 - Fax: 971 724 031  
[palma@greenpeace.es](mailto:palma@greenpeace.es)

Este documento es un capítulo del informe

## **Destrucción a toda costa**

Informe de Greenpeace sobre la situación del litoral

Julio 2004

Está disponible en nuestra página web:

**[www.greenpeace.es](http://www.greenpeace.es)**

Traductores: Ainara Azkona,  
Lander Astorkia, Agurtzane Iraeta.